


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

**B**ilbao



# Lluisa Espigolé eta Erica Wise

Portrait Concert Morton Feldman. *Patterns in a Chromatic Field* (1981) biolontxelo eta pianorako

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok Kataluniako musika berrien lurraldeko interpretatzaileak aktiboenetako bi aurkeztuko ditu kontzertuan: [Lluïsa Espigolé](#) pianista eta [Erica Wise](#) biolontxelo-jotzailea. Biek batera Morton Feldman konpositorearen *Patterns in a Chromatic Field* (1981) interpretatuko dute, ordubate eta hogeita hamar minutuko pieza.

Hainbat hamarkada igaro ondoren, New Yorkeko konpositorearen musikak harridura sortzen jarraitzen du. Morton Feldman bere pieza instrumental bereziengatik da ezaguna; oso iraupen luzeko soinu isolatuekin daude konposatuta, instrumentuen ezohiko konbinazioetarako, kasu honetan, biolontxelorako eta pianorako.

[Lluïsa Espigolé](#) piano-jotzailea pianorako erreperitorio garaikidean espezializatuta dago. Yukiko Sugawara, Nicolas Hodges, Florent Boffard eta Florian Hölscher-en ikaslea izan da; eta Hermann Kretzschmar eta Ensemble Modern-eko gainerako kideekin lan egin du, Frankfurt-eko Internationale Ensemble Modern Akademie jaialdian. Era berean, Peter Ablinger, Michael Beil eta haren belaualdiko konpositoreekin batera egin duen lana erabakigarria izan da Espigoléren prestakuntzan. Bere jardueraren ardatza da musika garaikidea interpretatzea eta estreinatzea, bakarlari gisa, ganbera-musikan, ensembleetan edota diziplinarteko eta inprobisazio libreko proiektuetan parte hartuz. 2011. urtetik piano garaikideko eta ganbera-musikako irakaslea da Aragoiko Goi Mailako Kontserbatorioan (CSMA).

Bestalde, [Erica Wise](#) txelistak ibilbide aldakorra izan du ganbera eta orkestrako musikari, bakarlari eta irakasle gisa. Goiz piztu zitzaion ganbera-musikarekiko maitasuna, Kinhaven Music School (Vermont) bezalako lekuetan eta Tanglewood, Yellow Barn eta beste jaialdi batzuetan udak pasatzen zituenean. Wisek biolontxelo-jotzaile nagusi gisa jo du Michael Tilson Thomas eta Seiji Ozawa zuzendarientzat, besteak beste; eta birak egin ditu New World Symphony, Baltimoreko Orkestra Sinfonikoarekin. Da Camerako kontseilari artistikoa ere bada. Gure garaiko musika garaikidearekin aktiboki konprometituta dago, eta estreinaldi ugari egin ditu mundu osoan barrena, bakarlari gisa, eta Bartzelonan egoitza duen ganbera garaikideko FUNKTION taldeko kide sortzaile gisa. Gaur egun, txelo eta ganbera-musikako irakaslea da Liceu-ko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, Bartzelonan.



**Urtarrilak 22, asteazkena**

19:00

Auditorioa

8€ / 6€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)



[lluisaespigole.com](http://lluisaespigole.com)



[ericawise.com](http://ericawise.com)